Kontratuen erregistroa 2023ko urrian

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2023ko urrian 51.001 pertsona kontratatu dira, joan den urteko urrian baino 2.577 gutxiago (% 4,8ko beherakada). Irailarekin alderatuta murriztu egin da kontratatutako pertsonen kopurua; 6.042 pertsona gutxiago kontratatu dira,% 10,6ko beherakada, hain zuzen ere.

• SEXUA

Hilabete honetan 25.223 gizonezko eta 25.778 emakumezko kontratatu dira. Aurreko urteko datuarekin alderatuta, bai emakume zein gizonen kontratazioa murriztu egin da; gizonezkoen kasuan murrizketa txikiagoa da, % 4,4ko jaitsiera izan baitu (-1.163 gizon) emakumezkoen % 5,2ko beherakadaren aldean (- 1.414). Hil arteko konparaketan % 10,6 murriztu da bi sexuetan (-2.980 gizon eta -3.062 emakume).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 35,66 da, eta baxuagoa da gizonena (35,43) emakumezkoena baino (35,88). Gipuzkoakoak dira kontratatutako pertsona gazteenak (35,27), eta Bizkaikoak, aldiz, zaharrenak (35,99).

Kontratatutako langile gazteenak, batez beste, laguntza teknikariak dira; horien batez besteko adina 30,14 urtekoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza lanetan kontratatutakoak dira; batez besteko adina 43,48 urtekoa da. Lanaldi partzialean kontratatutakoak lanaldi osoan kontratatutakoak baino gazteagoak dira (34,69 eta 36,16 urte, hurrenez hurren). Aldea haundiagoa da sexuaren arabera; lanaldi partzialeko emakumeak zaharragoak dira 35,77 urte baitituzte gizonezkoen 32,54ren aldean. Kontratuaren iraupenaren inguruan, aldi baterako kontratatutako pertsonak kontratu mugagabeak izan dituztenak baino zaharragoak dira (36,22 vs 34,57).

• JATORRIA

2023ko urrian kontratatutako pertsonen % 20,6k atzerriko nazionalitatea dute; joan den urteko ehunekoa baino 1,7 puntu altuagoa. Kontratatutako pertsona atzerritarren % 48,3k Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, % 15,7k Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, % 13,7k Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialderen batekoa, % 7,9k Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batekoa, % 7k Europako Erkidegoko herrialderen batekoa, eta, azkenik, % 6,1 Asiako herrialderen batekoa. Bertakoak atzerritarrak baino gazteagoak dira (35,48 eta 36,34 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-bolumen jakin bat duten atzerritarren artean, Latinoamerikakoak dira gazteenak (35,60 urte) eta Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialderen batekoak, zaharrenak (37,91 urte).

Azken hilabetean, kontratazio-maila esanguratsua duten jatorri guztietako pertsonen kontratazioak egin du behera. Balio absolutuetan zein erlatiboetan gehien murriztu den pertsonataldea Saharaz hegoaldeko Afrikakoa da: 405 pertsona gutxiago kontratatu dira eta % 22ko murrizketa izan dute.

Urteko erlazioari dagokionez, Europako Erkidegotik (-122 pertsona, -%14,2ko murrizketa) eta Erkidegotik kanpo (-88, -%9,6) datozen pertsonen kontratazioak egin du behera kontratazio-esanguratsua duten eremuen artean. Aldiz, balio absolutuetan gorakada handiena Latinoame-

rikatik etorritako pertsonen taldean gertatu da, 413 pertsona gehiago eta % 8,9ko igoerarekin; balio erlatiboetan, igoerarik handiena Saharaz azpiko Afrikatik etorritako pertsonen taldean izan da, % 9,9ko hazkundea izan du (130 pertsona gehiago kontratatu dira).

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 42,1ek oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, % 23k batxilergoko ikasketak egin ditu, % 18,1ek unibertsitateko ikasketak eta % 16,4k LH-koak

Hileko erreferentzian, jaitsi egin dira ikasketa-profil guztietako pertsonen kontratuak. Balio absolutuetan, gehien murriztu den profila oinarrizko ikasketena da, 3.068 pertsona gutxiago kontratatu baitira irailaren aldean (% 12,5eko beherakada ehunekotan); balio erlatiboetan, murrizketarik handiena unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatu da, % 19,1eko beherakadarekin (2.163 pertsona gutxiago kontratatu dira).

Urteko erreferentzian, murriztu egin dira ere ikasketa-profil guztietako kontratatuak. Jaitsierarik handiena, balio absolutuetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatzen da (- 1.263 pertsona, % 5,6 gutxiago); balio erlatiboetan, aldiz, jaitsiera handiena unibertsitate-ikasketak dituztenen artean gertatu da, % 8,4 jaitsi baita (847 pertsona gutxiago).

KONTRATUEN KOPURUAK

2023ko urrian zehar kontratazio kopurua 70.732 izan da EAEn, horietatik 18.858 (% 26,7) mugagabeak izan dira. Nahiz eta irailetik 2,5 puntutan murriztu portzentaia, balio handia izaten jarraitzen du da azken urteetako bilakaerarekin alderatuta. Datu honek, 2022ko joera berresten du eta esan daiteke iaz onartutako lan-erreformak ekarri duen kalitate handiagoko kontratazioren islada dela. Kontratu mugagabea izan duten gizonezkoen kopurua haundiagoa da emakumezkoen aldean (% 28,1 eta % 25,3 hurrenez hurren).

Kontratazioa % 3,7 murriztu da aurreko hilabetearekiko (2.742 kontratu gutxiago); aurreko urtearekin alderatuta ere, % 3,7 jaitsi da (2.687 kontratu gutxiago).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearen aldean, hazkunderik handienak kontratazioan jolas-jardueretan (+768) eta osasun-jardueretan (+556) izan dira. Jaitsierarik handienak, aldiz, hezkuntzan (-1.785), lehen sektorean (-1.721) eta manufaktura-industrian (-1.084) gertatu dira.

Iazko datuekin alderatuta, kontratazioak behera egin du jarduera gehienetan. Jaitsiera nabarmenenak profil hauen kontratazioan gertatu dira: manufaktura industrian (-1.217), merkataritzan (-787) eta etxeetako jardueretan (-736). Kontratazio gehien hazi diren jarduerak, aldiz, informazio- eta komunikazio-jarduerak (+1.324) eta osasun-jarduerak (+563) dira.

• OKUPAZIOA

Hil arteko konparaketan, kontratazioak behera egin du profil guztietan, teknikari eta profesional laguntzaileetan (+1.202) eta operadoreetan (+328) izan ezik. Balio absolutuetan, kualifikatu

gabekoen profilean jaitsi da gehien, 2.418 kontratutan, % 11,9ko jaitsierarekin; balio erlatiboetan, jaitsiera handiena lehen sektoreko kualifikatuen okupazioan gertatu da, % 48,6ko jaitsierarekin (281 kontratu gutxiago).

Iazko hilabete beraren aldean, jaitsierarik handienak kualifikatu gabekoen (-2.924) eta laguntza-teknikarien (-1.183) kontratazioan gertatu dira. Beste aldean, igoerarik handiena, bai balio absolutu zein erlatiboetan, tenikari eta profesional zientifikoetan gertatu da (+1.558 kontratu, % 15,9 gehiago); ondoren, zerbitzuetako kualifikatuak (+252) eta administrariak (+128) daude.

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, aurreko hilabeteetan bezala, kontratu mugagabeen portzentaia handia nabarmendu behar da, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi baitziren. Tasa horiek ohikoak dira lan-erreformaren ondoren. Badirudi kontratu mugagabeen sendotasuna handitzea dakarrela, izan ere, historikoki, urtean zehar kontratu mugagabeen kopuru esanguratsu bat sinatu arren, ez zuten lortzen aldi baterako kontratua zuten okupatuen kontratu-harremana finkatzea.

2023ko urrian sinatutako kontratuen % 34 lanaldi partzialekoak dira, % 44,3 emakumeen kasuan eta % 23,2 gizonenan. Kontratazio mota horren arazorik handiena da, gehienbat, nahigabekoa dela, eta agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanaren kalitate eskasa. Kontratu mugagabeen % 30,3 lanaldi partzialekoak dira.

Honako hauek dira lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak: ostalaritza (% 64,5), etxeetako jarduerak (% 45,5) eta merkataritza (% 44,8). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioan ehuneko handiena izan duen profila zerbitzuetako langileena izan da (% 54,1), eta gutxiena, lehen sektoreko kualifikatuen profila (% 2,4).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoei dagokionez, sinatutako kontratuen lanpostuen % 22,1 Araban dago, % 49,5 Bizkaian eta gainerako % 28,4 Gipuzkoan.

Hilabete honetan, Araban 851 kontratu gutxiago sinatu dira (% 5,2ko jaitsiera); Gipuzkoan 2.001 kontratu deuseztatu dira (% 9,1 gutxiago) eta, Bizkaian, aldiz, 110 kontratu gehiago egin dira (+%0,3).

Iazko datuekin alderatuta, Gipuzkoan 2.044 kontratu gutxiago sinatu dira (% 9,2ko jaitsiera), lurralde honek izan du jaitsierarik handiena balio absolutu eta ehunekotan; Bizkaian, berriz, % 2,7 jaitsi da (962 kontratu gutxiago); Araban, aldiz, 319 kontratu gehiago sinatu dira, hau da, % 2,1eko igoera.

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

2023ko urrian sinatutako kontratuen % 22,4 aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino.

Kontratuen erregistroa 2023ko urrian

Gizonetan, kontratuen % 29,8 horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen % 15,2 bakarrik egin du ABLE batek.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak % 4,5 hazi dira; 2022ko urriarekin alderatuta, aldiz, % 13 murriztu dira.



Kontratuen erregistroa 2023ko urrian

		Urr-2023	Ira-2023	Urr-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	18.858	21.435	22.322	-2.577	-12,02	-3.464	-15,5
	Aldi baterakoa	51.874	52.039	51.097	-165	-0,32	777	1,5
	Guztira	70.732	73.474	73.419	-2.742	-3,73	-2.687	-3,7
	Mugagabeen %	26,7%	29,2%	30,4%	-2,51		-3,74	
Sexua	Gizona	34.434	36.230	35.891	-1.796	-4,96	-1.457	-4,1
	Emakumea	36.298	37.244	37.528	-946	-2,54	-1.230	-3,3
	Guztira	70.732	73.474	73.419	-2.742	-3,73	-2.687	-3,7
	Emakumeen %	51,3%	50,7%	51,1%	0,63		0,20	
Mugagabea	Gizona	9.667	10.637	10.843	-970	-9,12	-1.176	-10,8
	Emakumea	9.191	10.798	11.479	-1.607	-14,88	-2.288	-19,9
	Guztira	18.858	21.435	22.322	-2.577	-12,02	-3.464	-15,5
Aldi baterakoa	Gizona	24.767	25.593	25.048	-826	-3,23	-281	-1,1
	Emakumea	27.107	26.446	26.049	661	2,50	1.058	4,1
	Guztira	51.874	52.039	51.097	-165	-0,32	777	1,5
Guztira	Gizona	34.434	36.230	35.891	-1.796	-4,96	-1.457	-4,1
	Emakumea	36.298	37.244	37.528	-946	-2,54	-1.230	-3,3
	Guztira	70.732	73.474	73.419	-2.742	-3,73	-2.687	-3,7
Mugagabeen tasa	Gizona	28,1%	29,4%	30,2%	-1,29		-2,14	
	Emakumea	25,3%	29,0%	30,6%	-3,67		-5,27	
	Guztira	26,7%	29,2%	30,4%	-2,51		-3,74	
Lanaldi partziala	Mugagabea	5.714	6.689	6.735	-975	-14,58	-1.021	-15,2
	Aldi baterakoa	18.334	18.322	18.716	12	0,07	-382	-2,0
	Beste batzuk	46.684	48.463	47.968	-1.779	-3,67	-1.284	-2,7
	Guztira	70.732	73.474	73.419	-2.742	-3,73	-2.687	-3,7
	LP tasa	34,0%	34,0%	34,7%	-0,04		-0,67	
Lanaldi partziala	Gizona	7.982	8.526	8.279	-544	-6,38	-297	-3,6
	Emakumea	16.066	16.485	17.172	-419	-2,54	-1.106	-6,4
	Guztira	24.048	25.011	25.451	-963	-3,85	-1.403	-5,5
	Gizonen tasa	23,2%	23,5%	23,1%	-0,35		0,11	
	Emakumeen tasa	44,3%	44,3%	45,8%	0,00		-1,50	
	Tasa guztira	34,0%	34,0%	34,7%	-0,04		-0,67	
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	50	133	66	-83	-62,41	-16	-24,2
	Beste batzuk	70.682	73.341	73.353	-2.659	-3,63	-2.671	-3,6
	Guztira	70.732	73.474	73.419	-2.742	-3,73	-2.687	-3,7
	Prestakuntzakoak (%)	0,1%	0,2%	0,1%	-0,11		-0,02	
L. historikoa	Araba	15.652	16.503	15.333	-851	-5,16	319	2,1
	Bizkaia	34.999	34.889	35.961	110	0,32	-962	-2,7
	Gipuzkoa	20.081	22.082	22.125	-2.001	-9,06	-2.044	-9,2
	EAE	70.732	73.474	73.419	-2.742	-3,73	-2.687	-3,7
Gizonak	Lehen sektorea	2.033	3.596	1.707	-1.563	-43,46	326	19,1
	Erauzketa-industriak	4	3	8	1	33,33	-4	-50,0
	Manufaktura-industriak	6.329	6.963	7.210	-634	-9,11	-881	-12,2
	Energia	12	6	17	6	100,00	-5	-29,4
	Ura	560	446	477	114	25,56	83	17,4
	Eraikuntza	1.787	1.782	2.054	5	0,28	-267	-13,0
	Merkataritza	3.161	3.428	3.519	-267	-7,79	-358	-10,2
	Garraioa	3.796	3.763	4.558	33	0,88	-762	-16,7
	Ostalaritza	3.572	3.498	3.501	74	2,12	71	2,0
	Informazioa eta komunikazioa	1.902	1.672	1.245	230	13,76	657	52,8
	Finantzak eta aseguruak	140	116	112	24	20,69	28	25,0
	Higiezinen sektorea	36	28	36	8	28,57	0	0,0
	Zientifikoak eta teknikoak	886	1.009	917	-123	-12,19	-31	-3,4
	Administraziokoak	3.284	3.228	3.395	56	1,73	-111	-3,3
	Administrazio publikoa	391	351	378	40	11,40	13	3,4
	Hezkuntza	1.465	1.924	1.621	-459	-23,86	-156	-9,6
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.831	1.776	1.778	55	3,10	53	3,0

Kontratuen erregistroa 2023ko urrian

		Urr-2023	Ira-2023	Urr-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Arte- eta jolas-jarduerak	2.512	2.080	2.554	432	20,77	-42	-1,6
	Beste zerbitzu batzuk	653	477	688	176	36,90	-35	-5,1
	Etxeetako jarduerak	79	83	116	-4	-4,82	-37	-31,9
	Lurraldez kanpoko erakundeak	1	1	0	0	0,00	1	
	Guztira	34.434	36.230	35.891	-1.796	-4,96	-1.457	-4,1
Emakumeak	Lehen sektorea	235	393	184	-158	-40,20	51	27,7
	Erauzketa-industriak	2	0	3	2		-1	-33,3
	Manufaktura-industriak	2.058	2.508	2.394	-450	-17,94	-336	-14,0
	Energia	17	16	11	1	6,25	6	54,5
	Ura	52	56	49	-4	-7,14	3	6,1
	Eraikuntza	131	155	145	-24	-15,48	-14	-9,7
	Merkataritza	4.564	4.478	4.993	86	1,92	-429	-8,6
	Garraioa	983	920	753	63	6,85	230	30,5
	Ostalaritza	5.686	6.051	6.334	-365	-6,03	-648	-10,2
	Informazioa eta komunikazioa	1.533	1.454	866	79	5,43	667	77,0
	Finantzak eta aseguruak	180	157	186	23	14,65	-6	-3,2
	Higiezinen sektorea	66	59	63	7	11,86	3	4,8
	Zientifikoak eta teknikoak	1.048	1.046	1.088	2	0,19	-40	-3,7
	Administraziokoak	4.204	4.196	4.233	8	0,19	-29	-0,7
	Administrazio publikoa	678	500	656	178	35,60	22	3,4
	Hezkuntza	3.744	5.070	3.789	-1.326	-26,15	-45	-1,2
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	7.178	6.677	6.668	501	7,50	510	7,6
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.723	1.387	1.943	336	24,22	-220	-11,3
	Beste zerbitzu batzuk	1.011	830	1.272	181	21,81	-261	-20,5
	Etxeetako jarduerak	1.199	1.288	1.898	-89	-6,91	-699	-36,8
	Lurraldez kanpoko erakundeak	6	3	0	3	100,00	6	
	Guztira	36.298	37.244	37.528	-946	-2,54	-1.230	-3,3
Guztira	Lehen sektorea	2.268	3.989	1.891	-1.721	-43,14	377	19,9
	Erauzketa-industriak	6	3	11	3	100,00	-5	-45,5
	Manufaktura-industriak	8.387	9.471	9.604	-1.084	-11,45	-1.217	-12,7
	Energia	29	22	28	7	31,82	1	3,6
	Ura	612	502	526	110	21,91	86	16,3
	Eraikuntza	1.918	1.937	2.199	-19	-0,98	-281	-12,8
	Merkataritza	7.725	7.906	8.512	-181	-2,29	-787	-9,2
	Garraioa	4.779	4.683	5.311	96	2,05	-532	-10,0
	Ostalaritza	9.258	9.549	9.835	-291	-3,05	-577	-5,9
	Informazioa eta komunikazioa	3.435	3.126	2.111	309	9,88	1.324	62,7
	Finantzak eta aseguruak	320	273	298	47	17,22	22	7,4
	Higiezinen sektorea	102	87	99	15	17,24	3	3,0
	Zientifikoak eta teknikoak	1.934	2.055	2.005	-121	-5,89	-71	-3,5
	Administraziokoak	7.488	7.424	7.628	64	0,86	-140	-1,8
	Administrazio publikoa	1.069	851	1.034	218	25,62	35	3,4
	Hezkuntza	5.209	6.994	5.410	-1.785	-25,52	-201	-3,7
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	9.009	8.453	8.446	556	6,58	563	6,7
	Arte- eta jolas-jarduerak	4.235	3.467	4.497	768	22,15	-262	-5,8
	Beste zerbitzu batzuk	1.664	1.307	1.960	357	27,31	-296	-15,1
	Etxeetako jarduerak	1.278	1.371	2.014	-93	-6,78	-736	-36,5
	Lurraldez kanpoko erakundeak	7	4	0	3	75,00	7	
	Guztira	70.732	73.474	73.419	-2.742	-3,73	-2.687	-3,7
Gizonak	<>	0	0	1	0		-1	-100,0
	Zuzendaritza	80	109	95	-29	-26,61	-15	-15,8
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	4.357	4.632	3.808	-275	-5,94	549	14,4
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	4.250	3.677	4.789	573	15,58	-539	-11,3
	Administrazioko langileak	1.267	1.258	1.197	9	0,72	70	5,8
	Zerbitzuetako kualifikatuak	6.819	7.018	6.505	-199	-2,84	314	4,8

Kontratuen erregistroa 2023ko urrian

		Urr-2023	Ira-2023	Urr-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	273	513	319	-240	-46,78	-46	-14,4
	Industriako kualifikatuak	3.261	3.409	3.665	-148	-4,34	-404	-11,0
	Operadoreak	4.196	3.936	4.239	260	6,61	-43	-1,0
	Kualifikatu gabeak	9.931	11.678	11.273	-1.747	-14,96	-1.342	-11,9
	Guztira	34.434	36.230	35.891	-1.796	-4,96	-1.457	-4,1
Emakumeak	<>	0	1	0	-1,00	-100,00	0,00	
	Zuzendaritza	54	59	62	-5	-8,47	-8	-12,9
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	6.998	7.785	5.989	-787	-10,11	1.009	16,8
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	3.545	2.916	4.189	629	21,57	-644	-15,4
	Administrazioko langileak	2.339	2.392	2.281	-53	-2,22	58	2,5
	Zerbitzuetako kualifikatuak	14.224	14.216	14.286	8	0,06	-62	-0,4
	Oinarrizko kualifikatuak	24	65	14	-41	-63,08	10	71,4
	Industriako kualifikatuak	375	468	409	-93	-19,87	-34	-8,3
	Operadoreak	785	717	762	68	9,48	23	3,0
	Kualifikatu gabeak	7.954	8.625	9.536	-671	-7,78	-1.582	-16,6
	Guztira	36.298	37.244	37.528	-946	-2,54	-1.230	-3,3
Guztira	<>	0	1	1	-1	-100,00	-1	-100,0
	Zuzendaritza	134	168	157	-34	-20,24	-23	-14,6
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	11.355	12.417	9.797	-1.062	-8,55	1.558	15,9
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	7.795	6.593	8.978	1.202	18,23	-1.183	-13,2
	Administrazioko langileak	3.606	3.650	3.478	-44	-1,21	128	3,7
	Zerbitzuetako kualifikatuak	21.043	21.234	20.791	-191	-0,90	252	1,2
	Oinarrizko kualifikatuak	297	578	333	-281	-48,62	-36	-10,8
	Industriako kualifikatuak	3.636	3.877	4.074	-241	-6,22	-438	-10,8
	Operadoreak	4.981	4.653	5.001	328	7,05	-20	-0,4
	Kualifikatu gabeak	17.885	20.303	20.809	-2.418	-11,91	-2.924	-14,1
	Guztira	70.732	73.474	73.419	-2.742	-3,73	-2.687	-3,7
ABLE	Gizonak	7.517	7.309	8.884	208	2,85	-1.367	-15,4
	Emakumeak	3.930	3.644	4.280	286	7,85	-350	-8,2
	Guztira	11.447	10.953	13.164	494	4,51	-1.717	-13,0
Pertsona-kopurua	Gizonak	25.223	28.203	26.386	-2.980	-10,57	-1.163	-4,4
	Emakumeak	25.778	28.840	27.192	-3.062	-10,62	-1.414	-5,2
	Guztira	51.001	57.043	53.578	-6.042	-10,59	-2.577	-4,8
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	21.451	24.519	22.714	-3.068	-12,51	-1.263	-5,6
	Batxilergoa	11.744	11.890	11.891	-146	-1,23	-147	-1,2
	LHko ikasketak	8.350	9.045	8.545	-695	-7,68	-195	-2,3
	Unibertsitate-ikasketak	9.211	11.374	10.058	-2.163	-19,02	-847	-8,4
	Atzerritarra	10.494	11.554	10.127	-1.060	-9,17	367	3,6
	Bertakoa	40.507	45.489	43.451	-4.982	-10,95	-2.944	-6,8
	<>	24	34	36	-10	-29,41	-12	-33,3
	Aberrigabea	69	67	61	2	2,99	8	13,1
	Europako Erkidegoa	735	845	857	-110	-13,02	-122	-14,2
	Erkidegokoa ez den Europa	827	893	915	-66	-7,39	-88	-9,6
	Txina	125	131	125	-6	-4,58	0	0,0
	Japonia	5	1	9	4	400,00	-4	-44,4
	Asiako beste herrialde bat	519	544	481	-25	-4,60	38	7,9
	Saharaz hegoaldeko Afrika	1.438	1.843	1.308	-405	-21,98	130	9,9
	Afrikako iparraldea	1.649	1.882	1.649	-233	-12,38	0	0,0
	Ipar Amerika	25	25	18	0	0,00	7	38,9
	Erdialdeko eta Hego Amerika	5.073	5.283	4.660	-210	-3,98	413	8,9
	Ozeania	5	6	8	-1	-16,67	-3	-37,5
	Atzerritarrak guztira	10.494	11.554	10.127	-1.060	-9,17	367	3,6